

## Foru aldundiak eta Deportivo Alavesek lurralde historikoa sustatzeko akordioari eusten diote 2019-20 denboraldian

Erakunde biek akordio bat sinatuko dute, 600.000 eurokoa izango dena

**Gasteiz, 2019ko abuztuaren 2a.** Arabako Foru Aldundiak eta Deportivo Alavesek babes akordioa izenpetuko dute, babazorroen taldeak Arabako Lurralde Historikoa susta dezan 2019-20 denboraldian. Gaur izandako Gobernu Kontseiluak onespena eman dio bi erakundeen arteko akordioari, 600.000 eurokoa izango dena.

Arabako Foru Aldundiak uste du kirola praktikatzea eredugarria dela gazteentzat eta, oro har, herritar guztientzat, osasungarria delako eta baloreak zabaltzen dituelako (ahaleginak, talde lana, errespetua aurkariari eta araei...) eta ekonomia sortzen duelako bere ekintza eremuan.

Ildo horretan, Deportivo Alavesek zenbait balore erakutsi ohi ditu urteetan zehar, hala nola handinahia, berrikuntza, talde lana eta tinkotasuna erakunde gisa. Parte hartzen duen lehiaketek zabalkunde handia daukate estatu mailan. Denboraldi bakoitzean zehar Alaves, batez beste, hogeita hamar hiritara joaten da jokatzera eta 300.000 ikusle inguruk ikusten ditu taldearen partidak. Partida batzuk estatuko telebistek ematen dituzte eta hainbat ikuslek ikusten dituzte.

Hori dela eta, aldundiak uste du klubaren jardura Arabako gizartearen tinkotze elementua ez ezik erakusle leiho ezin hobea ere badela Arabako baloreak eta ahalmenak sustatzeko, estatuan daukaten irudia sendotzeko eta lurraldea erakutsarazi eta zabaltzeko tresna bikain gisa. Horrezaz gainera, talde bat edukitzeak futbol nazionalako elitean onurak dakartzkio lurraldearen egitura ekonomikoari.

Zenbateko horren truke, foru erakundea ikusgai egongo da taldeko ekipamenduetan, publizitate estatikoan eta ledean Mendizorrotzako partidetan eta Deportivo Alavesek erabiltzen dituen ekipamenduetan. Gainera, lurraldea sustatzeko espazioa izango du klubeko web orrian eta Mendizorrotzako Araba Gunean, lurralderako interesgarri diren kolektiboetarako, arrazoi sozial, kultural edo kirolekoak direla medio.



## Lehen sektoreak gaztetzen jarraitzen du, Arabako Foru Aldundiaren eskutik lanean hasiko diren 20 nekazari gazteri esker

Gobernu Kontseiluak ebatzi ditu dagoeneko nekazari gazteei enpresak sortzeko ematen zaizkien dirulaguntzak; laguntza lerro horrek 18 eta 41 urte arteko 20 pertsonari ekarriko die onura, zeinak foru erakundearen eskutik hasiko baitira lehen aldiz sektore horretan. Dirulaguntza horien % 75 Landa Garapenerako Europako Funtsak (LGENF) finantzatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren barruan. Guztira, 617.000 euro banatuko dira bost urteko epe horretan, eta askotariko inbertsioak egiteko erabiliko da diru hori, baina gehienbat makinak erosteko. 20 gazte dira guztira, 18 gizon eta 2 emakume; hau da, iazko kopuru bera, eta 2017an baino bi pertsona gehiago. Horrek argi erakusten du belaunaldi berriei interesatzen zaiela nekazaritzan jardutea.

Dirulaguntzen xedea da gazteei laguntzea lehen sektorean sartzera ausartu daitezen, eta, hala, belaunaldien arteko ordezkatzeari gerta dadin, zaila izaten baita maiz. Baina, ez hori bakarrik: neurriaren xedea da, orobat, ordezkatzeari hori kualifikazio profesionala duten gazteek egin dezaten, lagunduz sortzen diren enpresa horien bidez etekin ekonomiko egokiak lortzen. Hala, bada, dirulaguntza horietarako deialdia ebatzi ondoren, Arabak hainbat gazte izango ditu lehen aldiz hasiko direnak mahastizaintza eta ardogintzaren sektorean, esnetarako behi eta ardi azienden sektorean edo haragitarako behi azienden sektorean. Oraingoan, Arabako Errioxako Kuadrillak ditu gazte gehien, 6; gero Añanako Kuadrillak, 5, eta ondoren Mendialdeak, 4; Zuiak eta Lautadak 2, eta Aiarako Kuadrillak 1.

20 nekazari gazteek batez beste 35.000 euroko zenbatekoa jasoko dute, ia milioi bat euroko inbertsioa egingo dutela ziurtatu ondoren. Gogorarazi beharra dago sektore horretako kostuak benetan handiak direla, baina badaude erak neurritz kanpoko inbertsioak saihesteko eta inbertsio horiek askotariko ekoizpen ereduera bideratzeko. Gainera, puntuazio berezia ematen zaie ekoizpen ekologikoari, estentsiboari, integratuari, ustiatzearen eraldatzeko den nekazaritza ekoizpenari eta xedetzat zirkuitu laburretan merkaturatzea duenari.

## Aldundiak diruz lagunduko ditu Leza, Iruña Oka, Lapuebla de Labarca, Zuia, Erriberabeitia, Bernedo eta Lantarongo hirigintza planak

Foru Aldundiak 244.412 euroko inbertsioa egingo du, hiri antolamendurako plan orokor berriak eta ingurumen ebaluazio txostenak idaztea finantzatzeko

Araban, guztira, 8 udalerrik ez dituzte hasi oraindik beren hirigintza plan berriak idazteko izapideak

Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak onetsi du Arabako udalei hirigintza planak idazteko dirulaguntzen bosgarren ordainketa egitea. Zehazki, Leza, Iruña Oka, Lapuebla de Labarca, Zuia, Erriberabeitia, Bernedo eta Lantarongo udalek eskuratu dituzte dirulaguntza horiek.

Horretarako, hirigintza planak egiteko 991.924 euroko inbertsioa egin du jadanik aldundiak 2016tik. Hartara, Arabako aldundiak udalerriak animatu eta diruz lagunduko ditu beren hirigintza planak egin ditzaten. Izan ere, hirigintza agiri horiek 2021. urtea baino lehen bukatuta egon behar dute, eta, batez beste, bost urte behar dira lantzeko, idazten hasten denetik onetsi arte, jendaurrean jartzeko aldia barne.

Gaur egun, Arabako guztira 9 udalerrik ez dituzte hasi oraindik beren hirigintza planak egiteko izapideak. Guztira 13 udalerrik onetsi dituzte beren hirigintza planak (Arratzua-Ubarrundia, Asparrena, Berantevilla, Kanpezu, Eltziego, Bilar, Kripan, Lantziego, Navaridas, Oion, Agurain, Urkabustaiz eta Eskuernaga), bai eta legera egokitu ere, eta gainerako udalerriak (29) izapidetze prozesuan daude.

## Arabako Foru Aldundiak tranbia Salbururaino eramateko hitzarmena onetsi du

### 4,3 milioi euro bideratuko ditu proiektu hori finantzatzera

Arabako Foru Aldundiak guztira 4,3 milioi euro bideratuko ditu 2020-2022 hirurtekoan Gasteizko tranbia Salburua auzora eramateko. Proiektu horrek hirian eta lurraldean inbertsio publiko handia egitea eragingo du, eta hari esker era jasangarrian lotu ahalko dira Salburua, erdialdea, autobusen geltokia eta unibertsitateko campusa.

Foru Gobernu Kontseiluak gaur eman dio oniritzia, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak hala proposatuta, Euskotrenen (Eusko Jaurlaritzaren menpeko erakunde publikoa), Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzara arautzen duen hitzarmenari, hiriko tranbia sistema handitzea finantzatzeko. Laster sinatuko da hiru erakunde horien arteko hitzarmena.

Proiektuak 2.450 metroko trazadura berri bat egitea aurreikusten du. Luzapen berria Florida kaleko geltokiko maniobra zonaren atzealdetik abiatuko da, unibertsitate campuseraino iritsiko da eta Salburua Iparralderaino jarraituko du. Hala, ibilbidea Florida kalean hasi, Iliada ibilbidetik eta Salburua bulebarraren mendebaldetik jarraitu eta Joan Karlos I.aren hiribidean amaituko da; eta bost geltoki izango ditu (Santa Luzia, Gizarte Etxea, Nikosia, Salburua eta Joan Karlos I.a).

Aurrekontua 24,83 milioi euro dira, BEZa aparte, eta Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren artean ordainduko da. Hitzarmenak honela arautuko du haietako bakoitzaren ekarpena: Eusko Jaurlaritzak kostuaren % 65 hartuko du bere gain, hau da, 16,14 milioi euro; Arabako Foru Aldundiak % 17,5 finantzatuko duela esan du, 4,34 milioi baino gehixeago, eta Gasteizko Udalak ehuneko eta kopuru berdina finantzatuko du.

Hitzarmen horren jatorria da erakunde horiek berek 2016an sinatutako aurre akordioa, Gasteizko garraiobide publikoaren eskaintza integratuko duen proiektu batean lankidetzan aritzeko, eta horrek argi uzten du lankidetzarako borondatea dagoela erakundeen hiru mailetan, Arabako hiriburuko eta lurraldeko mugikortasun politikak jasangarritasun irizpideen arabera garatu nahi dituztelako eta jarduera eta enplegua sortzeko inbertsio publikoa sustatu nahi dutelako.

## Diputatu nagusiak bere saila indartu du hiru zuzendaritza sortuta

Lehendik zeuden Komunikazio Zuzendaritza eta Kabinetearen Zuzendaritza elkartu egingo dira zuzendaritza bakarrean, eta beste hauek gehituko zaizkio: Berdintasuna eta Giza Eskubideak, Nerea Melgosaren ardurapean; Arlo Estrategikoak, Jose Luis Cimianoren kontu; eta Euskara eta Gobernu Irekia, Lexure Ugarteren kargura

Arabako Foru Aldundiak itxura hartzen jarraitzen du 2019-2023 legegintzaldiari begira, eta gaur goizean bertan onetsi da Diputatu Nagusiaren Sailaren egitura organikoaren dekretua. Foru gobernuaren etapa berri honetarako, aldundiko agintari gorenak bere organigramako zenbait arlo indartu nahi izan ditu eta, horretarako, beste hiru zuzendaritza izango ditu. Lehendik zeuden biak, Komunikazio Zuzendaritza eta Kabinetearen Zuzendaritza, batu egingo dira eta zuzendaritza bakarra izango dira datozen lau urteetan.

Hortaz, diputatu nagusiak orain arteko arloei eutsiko die, baina, gainera, berritasunak ere sartuko ditu, hala nola datu pertsonalen babesa, giza eskubideak, lurraldea kanpoan ezagutzera ematea eta arlo estrategikoen zuzendaritza berri bat, eta euskara politiken kudeaketa eta egikaritzea ere sartu ditu, zeinaren ardura desagertu den Euskara, Kultura eta Kirol Sailak izan baitu orain arte.

Horregatik, Diputatu Nagusiaren Sailak esleituta dauzkan arloak zenbat eta zein desberdinak diren kontuan hartuta, eta beraren eskumenak hobeto eta modu eraginkorragoan antolatzeko asmoarekin, erabaki da legealdi honetan eskumenak kudeatzeko ardurak hainbat zuzendaritza unitateren artean banatzea.

Hain zuzen ere, Komunikazio Zuzendaritza zena oraindik aurrera Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza izango da; zuzendaritza honek lehengo egitekoak edukiko ditu (erakundea ordezkatzeko, Gobernuaren jarduna zuzentzeko, sailak koordinatzea, eta gizarte eta erakunde harremanak) eta horiez gainera beste batzuk hartuko ditu (legezkotasun kontrola eta fede publikoa, lege aholkularitza eta

abokatu defentsa, Batzar Nagusiekiko harremanak, Miñoiak, herritarren arreta, erregistro orokorra eta ALHAO). Elena Ferreirak zuzenduko du lan hori.

Berritasunetako bat da honako arlo hauek kudeatuko dituen zuzendaritza: nazioarteko elkartasuna, garapenerako lankidetzak, berdintasunerako politikak, immigrazio politikak, giza eskubideak eta memoria historikoa. Eginkizun horiek Gasteizko Udaleko zinegotzi ohi Nerea Melgosaren ardurapean egingo dira.

Gainera, aurrerantzean, diputatu nagusiak bere sailaren egiturari izango du Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritza, zeinak honako egiteko hauek edukiko baititu: euskara politikak kudeatzea Arabako Lurralde Historikoan, eta gardentasuna eta herritarren parte-hartzea Arabako Foru Aldundian eta gainerako foru sektore publikoan. Zuzendaritza horren arduraduna Lexure Ugarte izango da: Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna da, eta ibilbide aipagarria dauka zenbait erakundetarako itzultzaile gisa.

Eta, azkenik, Ramiro Gonzalezek beste pieza bat gehitu du bere organigraman, hain zuzen Foru Gobernuaren funtsezko proiektuak koordinatu, gainbegiratu eta bultzatzeko ardura izango duena: Arlo Estrategikoen Zuzendaritza. Jose Luis Cimianok zuzenduko du, zeinak esperientzia egiaztatua baitu eta beste lau urtez egongo baita aldundian, azken legegintzaldia Ogasun eta Aurrekontu Sailean egin ostean.

## **Ingurumen zuzendari berria**

Baina Diputatu Nagusiaren Saila ez da berritasunak dakartzan bakarria. Aste honetan bertan, Arabako Foru Aldundiak foru gobernura sartu du Natividad López de Munain Ingurumen zuzendari berria. Burgeluko Udaleko alkate izan da 2003. urteaz geroztik, eta Josean Galera diputatuaren taldekide izango da hemendik aurrera.



## **Nati López de Munain Alzola**

Ixonan (Araba) jaio zen 1960ko irailaren 1ean.

Psikologian lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Katastrofe eta hondamendi naturaletako esku-hartze eta laguntza psikologikoko titulua dauka. Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzara sartu arte, Gasteizko Udaleko Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuan psikologo lanetan aritu izan da, babesik gabe dauden familia eta hurrekiko esku-hartzean.

1999an hasi zuen udal politikako ibilbidea Burgeluko Udalean, zinegotzi, eta 2003tik gaur egun arte udal horretako alkatea izan da.

Azken urteotan, zenbait kargutan jardun du, hala nola: Lautadako Kuadrillako batzarkide —hala dihardu gaur egun ere—, Lautada LGEaren lehendakari, Euskal Fondoaren Batzarreko kide (Lankidetzarako Euskal Fonda), Estatuko Konpostaje Sareko Konpostaren Batzarreko kide, Terrae sarearen ordezkari (Agroekologiaren aldeko Udalerrien Estatuko Sarea), Eudelen Zuzendaritza Batzordeko kide iragan legegintzaldian eta Basqueskola sarearen (udal politikan emakumeei laguntzeko sarea, Eudel) talde bultzatzaileko partaide.





Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

# Prentsa Oharra Nota de Prensa

## **Nerea Melgosa**

Gasteizen jaioa, 1970eko irailaren 28an.

Soziologian lizentziatua. EADA Negozio Eskolako (Bartzelona) Giza Baliabideen inguruko masterra egin zuen. UHUNen Merkatu Azterlanei buruzko unibertsitateko espezializazio ikastaro bat egin zuen, eta Deustuko Unibertsitatean Kooperatiben espezializazio ikastaro bat.

2007-2011 legegintzaldian Gasteizko Udaleko zinegotzi izan zen, eta Gizarte Zerbitzuetako eta Ekonomia Sustapeneko arloetako bozeramaile. Era berean, Funtzio Publikoko Batzordeko presidentea izan zen.

Gizarte Politiken Saileko zinegotzi ordezkaria izan da 2015etik 2016ko maiatzera eta Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkaria eta Bizikidetzeta eta Aniztasun Zerbitzuko zinegotzi ordezkaria 2015-2019 legegintzaldian.





Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

## Prentsa Oharra Nota de Prensa

### **Lexuri Ugarte Aretxaga**

Laudion jaioa eta Orozkon (Bizkaia) bizi dena.

UPV/EHUko Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua eta komunikazio arloan eskarmentu handiko emakume honek, zortzi urte igaro zituen Bilboko Udaleko Prentsa Kabinetean lanean, Iñaki Azkuna alkatearen gidaritzapean.

Azken bi urte hauetan Aiara Eskualdean diharduen ZABAIA Landa Garapenerako Elkartean jardun izan da teknikari gisa eta berton, harreman zuzena izan du Aiara eta Amurrioko Administrazio Batzarrekin eta Aiara, Artziniega, Okondo, Amurrio eta Laudioko Udalekin. Esperientzia honek, administrazio batzarren eta udalen kudeaketa eta Eskualdeko landa eremuko herritarrek aurre egin behar dieten erronka nagusiak lehen eskura ezagutzeko aukera eskaini dio.

Euskaldun zaharra, EGA tituluduna, azken sei urteetan itzulpen lanak bete izan ditu, SPRI, BASKEGUR eta abar luze bat bezalako entitate eta enpresentzat.



## Belén González, Javier Mardones, Patricia Pérez eta Pablo de Oraá, Enplegu Sustapen, Zerbitzu Orokor, Mugikortasun eta Kiroleko zuzendari berriak

Zuzendaritza berri bik bultzada emango die mugikortasun jasangarriari eta kirola sustatzeko politikei

Belén González Benito, Javier Mardones Gómez-Marañón, Patricia Pérez Aguirre eta Pablo de Oraá Oleaga Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren; Zerbitzu Orokorren; Mugikortasun; eta Kiroleko zuzendari berriak. Foru Gobernu Kontseiluak gaur izendatu ditu lau goi kargu horiek. Horien curriculum vitae prentsa ohar honekin batera doaz.

Belén González Benito, Enpresen administrazio eta zuzendaritzan lizentziaduna da eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendari izango da, azken urteetan Arabako Foru Aldundiko enplegu eta merkataritzako teknikari arduraduna, Eusko Jaurlaritzako Teknologia eta Estrategia Zuzendaritzako teknikaria eta Arrasateko Ibai-arte merkatarien elkarteko teknikaria izan ostean.

Javier Mardones Gómez-Marañón Zerbitzu Orokorren zuzendari berria izango da, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren, eta Foru Administrazioaren Sailean, aurrekoa bezala. Mardonez nekazaritzako ingeniari teknikoa da prestakuntza duena giza baliabideen kudeaketan eta kostu eta inbertsioen analisisian eta salmenta ingeniaria izan da Baika STS enpresan; zenbait kargu publikotan ere jardun du.

Patricia Pérez Aguirre Mugikortasun zuzendaria izango da Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren barruan. Pérez Aguirre Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziaduna da eta ondarearen eta inbertsioen kudeaketako prestakuntza osagarria dauka. Halaber, esperientzia dauka taldeen kudeaketan; izan ere, Nafarroako Rural Kutxako bulego zuzendari izan zen Gasteizen.

Foru Gobernu Kontseiluak Pérez Aguirreren izendapenaz gain, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren egitura dekretu berria onetsi du.

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak joan den legegintzaldian zuzendaritza bakarra zuen gobernu arlo horretako egiteko guztiak kudeatzeko; orain bi izango dira: Bide Azpiegiturak eskumenak izango ditu errepide, bide ustiapen eta segurtasun, bidezaintza eta desjabetze arloetan; eta Mugikortasunak, herri arteko garraio, mugikortasun, eta ikuskaritza eta baimen arloetan.

Aldaketa horren helburua da kudeaketa eraginkorragoa lortzea eskumen horietan eta egokitzea sailaren egitura erronka berriei aurre egiteko, hau da, mugikortasun jasangarrirantz jotzea EBko printzipio eta estandarren arabera eta bat etorritik ONUren 2030 Agendarekin eta Klimari buruzko Parisko Biltzarrarekin. Egitura berriak mugikortasunaren arloa tinkotzen du, eremuko sail gehien ildotik.

Azkenik, Pablo de Oraá Oleaga Kirol zuzendari berria izango da. De Oraá Ekonomia eta Enpresa Zientzietako lizentziaduna da eta ardura hori hartuko du bere gain azken urteetan Eusko Jaurlaritzan Enplegu eta Prestakuntzako teknikaria eta Vital Fundazioko patronatuko kidea izan ondoren. Kargu publikoetan ere jardun du Eusko Jaurlaritzako Ordezkaritzan eta Arabako Batzar Nagusietan.

Foru Gobernu Kontseiluak Pablo de Oraáren izendapenez gain, Kultura eta Kirol Sailaren egitura dekretu berria onetsi du.

Kultura eta Kirol Sailak ere zuen zuzendaritza bakarra bere eskumen guztiak koordinatzeko; hemendik aurrera bi izango dira: Kultura Zuzendaritza, batetik, eskumen hauekin: artxiboak eta liburutegiak, museoak, zaharberrikuntza, kultura zabalkundea eta ondare historikoa, artistikoa eta arkitektonikoa. Kirol Zuzendaritzak, berriz, kirola lurralde historikoan sustatzeari buruzko egitekoak beteko ditu.

Egitura berri horren bidez eraginkortasun handiagoa lortu nahi da saileko aginpidetza guztietan eta, bereziki, tinkotu arabarren artean kirola praktikatzea sustatzeko politika publikoak, eskola kiroleko programen bitartez, kirol klubei eta federazioei laguntza emanez eta goi-errendimenduko kirolari arabar ez profesionalei lagunduz Kirolaraba Fundazioaren bidez.

**Belén González Benito**



Gasteiz, 1982

## **Kargua**

---

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren  
zuzendaria

## **Ikasketak**

---

- Enpresa Zuzendaritzako lizentzia. Sarrikoko fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea

## **Ibilbide profesionala**

---

- Enplegu eta merkataritzako teknikari arduraduna Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Sailean. Bitarteko funtzionarioa (2016-2019)
- Teknikaria Eusko Jaurlaritzako Teknologia eta Estrategia Zuzendaritzan. Bitarteko funtzionarioa (2016)
- Merkataritzako teknikaria Arrasateko Ibai-Arte merkatarikari elkartearen (2015)
- Merkataritzako aholkulari teknikoa Arrasateko Ibai-Arte merkatarikari elkartearen. Bekaduna Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailean (2013)

**Javier Mardones Gómez-Marañón**



Barakaldo, 1976

## **Kargua**

---

Zerbitzu Orokorren zuzendaria

## **Ikasketak**

---

- Nekazaritza Ingeniaritza Teknikoa
- Prestakuntza osagarria: produkzio kudeaketa, pertsonen kudeaketa, giza baliabideak, fabrikazio kalitatea, kostu eta inbertsioen analisisa, eta osasuna eta lan arriskuen prebentzioa.

## **Ibilbide profesionala eta politikoa**

---

- Gobernuaren Burgosko Azpiordezkaritzako Kabineteko zuzendaria (2018-2019)
- Salmenta ingeniaria Baika STSn, lehen STS Tubular Group, Dulantzin kokatuta dagoen altzairu tutuen sektoreko enpresa (2006-2019)
- Valle de Menako Udaleko zinegotzi, alkateorde eta bozeramailea (2003-2015)
- Esportazio komertziala STS Tubular Group enpresan (2004-2005)



## **Patricia Pérez Aguirre**

Vitoria-Gasteiz, 1982

### **Kargua**

---

Mugikortasun zuzendaria

### **Ikasketak**

---

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziaduna. EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea
- Ondarearen eta Inbertsioen Kudeaketako prestakuntza osagarria

### **Ibilbide profesionala**

---

- Nafarroako Rural Kutxako bulego zuzendaria, Gasteizko hainbat bulegotan (2009-2019)
- Nafarroako Rural Kutxako kudeatzaile komertziala Gasteizen (2005-2008)
- Administrazio lanetako laguntzailea Seguros Lagun Aro Saren Bezeroen Arretarako Sailean, Bilbon



## **Pablo de Oraá Oleaga**

Gasteiz, 1962

### **Kargua**

---

Kirol zuzendaria

### **Ikasketak**

---

- Ekonomia eta Enpresa Zientzietako lizentziaduna. Sarrikoko Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea

### **Ibilbide profesionala eta politikoa**

---

- Enplegu eta Prestakuntzako teknikaria, funtzionario lanpostuarekin Eusko Jaurlaritzan (2012-2019)
- Vital Fundazioko patronatuko kide-fundatzailea (2014-2019)
- Gobernuaren Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritzako Kabineteko burua (2004-2012)
- Batzarkidea Arabako Batzar Nagusietan (2003-2004)
- Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionarioa. Lan eta Barne ministerioak (1985-2004)